

DROGETEN ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 289. zenbakia. 2020ko maiatza



**Laura Fernandes,
etxealdia
arintzeko ipuinak**



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,
Periodontzian, inplantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Autran Institutua. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

f Facebooken: Clínica Dental Irazabal **www.clinicairazabal.com**



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1. esk. - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - **www.clinicairazabal.com**

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran,
Amaia Arginzoniz,
Estibalitz González,
Libe Solozabal
eta Dorleta Vidal.

**KOORDINAZIOA
ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Laura Fernandes.

LAGUNTAILEAK:

Gaizka Areitioaurtena,
Antonio Hernández 'Cuco',
Xabier Mirandona,
eta Valentin Mugarza.

ARGAZKIAK:

Berbalagun,
Gorka Gonzalez,
Estibalitz González,
Laura Fernandes,
Xabier Mirandona,
Valentin Mugarza,
Pedro Pérez,
Itzal Txabarri,
Dorleta Vidal
eta Gorka Vilchez.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Piedi Eizagirre,
Ibon Txurruka
eta Olatz Vidal.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

11 33-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-21 3/1994.

Drogeteniturrrik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako iritzien erantzukizunik.

Bertoko kantuak

Herritarron ahotik

Gaia: ume kantua.

Don-don Beleron

(Entzuteko: www.alboka.es)

Don-don Beleron
Belerongo elixan,
zazpi gizon dantzan.
Zu mozkorra, ni mozkorra
zoiiaz zoiiaz kanpora!



Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA4 Iñaki Mirandona (El Salvador)	BOTEPRONTOAN..... 15 Itzal Txabarri
ERREPORTAJEA5-7 Gurutze Gorria	IRITZIA 16 Birusaz eta eskolaz
MALLABIAN ZER?8-9 Laura Fernandes ipuin-kontalaria	ZORION-AGURRAK SAREAN GALDEZKA 17 Deseskalatzearen eraginez, gure ohiturak aldatuko dira?
MOTZEAN 10 Ermuan Bagara	ANTZINAKOAK..... 18 Ermuko eta Mallabiko argazkiak
ERMUAN ZER?12-14 Gorka Vilchez ingeniaria Tabernariak deseskalatzean Tximeletaren izen bilduma	

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜÍSTICA

Iñaki Mirandona

1972an joan zen lehen aldiz El Salvadorrera Iñaki Mirandona ermuarra, eta han garatu du bere bizitza proiektua. Hala ere, Euskal Herriarekin lotura oso sendoa du oraindik ere.

- Duela zenbat urte joan zinen Ermutik?

1972an etorri nintzen aurrenekoz, jatorri euskalduna zuten enpresari batzuk lan kontratua egin zidatelako. Urte eta erdi geroago, kontratu hura bukatu zitzaidanean, ez zidaten egoera formalizatu, eta Ermura bueltatu nintzen. Euskal Herriko egoera ez zen oso ona, eta legalak ez ziren jardueretan muturra sartzen hasi nintzen (euskararekin eta nazionalismoarekin zerikusia zutenak, besteak beste). Hori dela eta, 1974ko abenduan erabaki nuen El Salvadorrera bueltatzea. Hona etorri eta astebetetera Guardia Zibila nire etxera joan zen miaketa egitera. Baina hor geratu zen kontua.

- Erabaki erraza izan zen Euskal Herriatik joatea?

Ez, ez zen batere erraza izan. Baina El Salvadorren urtebete bizi eta gero, asko gustatu zitzaidan eta bertan geratzea erabaki nuen.

- Erraz moldatu zinen?

Ondo egokitu nintzen, eta hasieran asko lagundu zidan bertan zegoen euskaldunen eta espainolen komunitateak. Denborekin, gero eta salvadortar gehiago ezagutzen joan nintzen, eta erraza egin zitzaidan egokitzea, oro har atseginak baitira.

- Eguraldia oso ezberdina da?

Klima tropikala dugu, eta oso eguraldi ona dugu ia urte guztian. Oraindik, baina, ez naiz lurrikaretara ohitu. Noizean behin lurrak dar-dar egiten du, eta hemen bizi naizenetik bi lurrikara nahiko handiak jasan izan ditugu.

- Bertan osatu duzu familia...

Bai, duela 43 urte Marta Alicia Paredesekin ezkondu nintzen, eta bera da nire seme-alaben ama: Xabier Félix eta Miren Arantzazu.

- Zertan egiten duzu lan?

Metal-grabatzaila naiz. 1983an tailer bat zabaldu nuen Marta Aliciarekin batera, eta oinetakoentzako eta galtza bakoentzako piezak eta burdineria grabatzen eta trokelatzen genituen. Tailer hura plastikozko piezak egiteko injekzio lan-tegi bihurtu da. Bitxigintzarako grabatuak egiten jarraitzen dugu, baina gutxitan.

- Zer egiten duzu aisialdian?

El Salvador oso herrialde txikia da, Amerika kontinentaleko txikiena. Asteburuetan, ahal dugunean, kostaldera joaten gara, hondartzan dugun etxera. Bertan ortu txikia daukat, eta Gernikako piperrak, berenjenak, ahukateak, mangoak eta zenbait gauzatxo gehiago hazten ditut.

- Euskaraz hitz egiten jarraitzen duzu?

Ahal dudan guztietan euskaraz hitz egiten dut. Nire neba-arrebekin telefonoz edo WhatsAppez hitz egiten dudanean, edota bideo deietan, hala nola hemengo euskaldun batzuekin. Nire ama-hizkuntza da, eta zaila da ahaztea.



Iñaki Mirandona, Xabi semearekin.

- Zerbait botatzen duzu faltan?

Nire herrialdea, noski, hango ohiturak eta bertan daukadan familia. Neba-arrebak eta ilobak ditut.

- Kontaktuan jarraitzen duzu hemengoekin?

Bai, Ermuan eta Arteagan dudan familiarekin harremana izaten jarraitzen dut, baita lagunekin ere. Urtean behin bertara joaten naiz bisitan, eta aldi batean han geratzen gara, Zubiaurren pisu bat daukagulako, nire amarena zena.

- Noiz egon zara hemen azkenekoz?

laz, udazkenean.

- Uste duzu Ermura bizitzera bueltatuko zarela?

Askok gustatuko litzaidake Euskal Herriko neguak El Salvadorren igarotzea, eta udan Ermura joatea. Baina koronabirusaren kontu honekin itxaron beharko dugu.

- Zer nolako eragina izan du koronabirusak orain arte El Salvadorren?

Momentuz ez da oso bortitza izan, baina 2 hilabete darmatzagu berrogeialdian, eta negozioak itxita daude. Gaur gaurkoz, 30 pertsona hil dira eta 1.400 kutsatu, baina seguruenik datu horiek ez dira errealak, eta benetako kopuruak handiagoak izango dira. Arduratuta gaude, gure negozio txikian 12 langile ditugulako, eta denbora honetan soldatak ordaintzen jarraitu dugu, egungo gobernuaren inolako laguntzarik gabe. Lanari berriro ekiteko nolabaiteko planaren edo pizgarriaren zain gaude, lanera bueltatzea oso gogorra izango delako, eta ez dugu nahi gure langileak lanik gabe uztea eta, noski, guk lanik ez izatea.

Dorleta Vidal



Gurutze Gorriko boluntarioak elikagai-banaketarako sortak prestatzen. Argazkiak: Gurutze Gorria.

Gurutze Gorria, premia berrietan ere eraginkor

Koronabirusak eraginda, Gurutze Gorriaren lan karga handitu da mundu mailan azken hilabeteotan, eta betiko jardueretan zein ekimen berrietan aritzeko boluntario gehiagoren beharra sumatu dute. Ermuari dagokionez, deialdia egin eta hogeita hamar boluntario baino gehiago batu dira mugimendu honetara. Haien zeregin berrien artean honako hauek nabarmentzen dira: etxez etxeko elikagaien, botiken eta liburuen banaketa, paseatzeko laguntza eta telefono bidezko arreta bakarrik bizi diren pertsona nagusiei, besteak beste.

Duela 150 urte baino gehiago jaio zen Gurutze Gorria (1864ko uztailaren 6an), nazioarteko mugimendu humanitarioa da eta 97 milioi boluntario, kide eta langile ditu gutxi gorabehera mundu osoan. Bere helburuak dira biztanleriaren sektore ahulenaren ondoan egotea, eta bizitzak babestea eta sufrimendua arintzea, momentu bakoitzaren behar eta eskaeren arabera. Koronabirusak eszenatoki berria ekarri du, beharrezan sortu ditu, eta haiei erantzuna eman ahal izateko, ezinbestekoa izan da herri guztietako proiektuetara boluntario gehiago batzea.

Eibar-Ermuko Gurutze Gorriko zuzendaria den Pedro Pérezek jakinarazi duenez, 50 lagun ari dira egunotan Ermuan boluntario bezala. Haiek erakartzeko bi deialdi egin ziren, bat Udalen bitartez eta bestea Eusko Jaurlaritzako Guztion Artean programaren bidez, eta 34 ermuarrek eman zuten izena. “Egia esan, nik neuk horrelako erantzuna espero nuen, hasieratik jendearen interesa ikusten zelako”, dio Pérezek.

Haien perfilei dagokienez, denetik dago: “Pertsona gazteak dira gehien bat, baina badaude jubilatutak ere, eta aurretik boluntario izan direnak eta berriro gurera batu direnak. Eta %70 emakumeak dira”. Kide berri hauek *formakuntza-pildora* bat jaso zuten, eta gero aurrez aurre azaldu zitzaizkien zehatz-mehatz, hala nola maskarak eta eskularruak nola erabili. Txaleko bereizgarriak ere eman zizkieten, *balkoieta*ko *polizien* eta benetako poliziaren aurrean identifikatuta joateko.

“Martxoaren 15ean komunikatua bidali genuen Udalera, eta adierazi genion hainbat ekintza martxan jartzeko prest geundela”, azaldu du Pérezek. Jarduera horietako bat izan

Pandemiaren eraginez, %50 igo dira Ermuan elikagaiak jasotzeko eskaerak



Maskarak banatzen.

Drogetenitxuri, 289 zk.



Gurutze Gorriko boluntarioak eta hainbat herritar paseo batean.

zen etxek etxeko zerbitzua, berrogeialdi edo konfinamenduaren eraginez kalera irten izan zirenei laguntzeko: elikagai eta oinarritzko higienarako produktuak helarazteko, eta gaixo kronikoei botikak eramateko, besteak beste. Bestalde, telefono bidezko jarraipena egiteko eskaintza ere egin zuten, arriskuan dauden kolektiboei (nagusiak, bakarrik edo isolatuta bizi direnak, desgaitasunak dituztenak...), prebentzio eta informazio mezuak helarazteko.

Zereginak zehaztuta eta boluntarioak prest, lanean hasi ziren. Alde batetik, betiko ekintzei eutsi diete, eta kalteberatasun egoeran daudenei elikagai freskoen eguneroko ohiko banaketa egiten jarraitu dute boluntario berriek zein aurretik zeudenek. Etxeko peoretan entregatzen zituzten jakiak, pertsona hauek kalera irten behar ez izateko, baina momentu batean dinamika hau eten egin zen. “Ermuko Gurutze Gorriak Bergarako Elikagai Bankuarekin egiten du lan, hura arduratzen da saltokietara joateaz, soberan dituzten elikagai freskoak jasotzeaz eta herrien artean banatzeaz —azaldu du Pedrok—. Kontua da bertan aritzen diren boluntarioak nagusiak direla, eta koronabirusaren kontuarekin, beldurtu ziren eta etxean geratu ziren. Ondorioz, Bergarako Bankua itxi zen, eta supermerkatuek soberan zituzten produktu freskoak zaborrera botatzen hasi ziren. Orduan gu hasi ginen eguneroko Eroski, Lidl eta Mercadonara joaten elikagai horiek jasotzera, behar dutenei emateko”. Galkorrak ez diren produktuekin, ordea, ohi bezala lanean jarraitu dute.

Elikagai-banaketa inguruan datu kezagarria jakinarazi du Pérezek: pandemiaren eraginez, %50 inguru igo da laguntza eskatu dutenen kopurua. “Alde batetik, ordaindu ez diren Enplegu-Erregulazio Espedienteak daude datu horien atzean. Bestalde, badago kontratu barik lan egiten duen jende asko, beltzean kobratzen duena: bere kontura lantxoak egiten dituztenak, zaintzaileak, etxeko garbiketarako egiten dituztenak... eta horiek ez dute izan aukerarik inolako lana egiteko —azaldu du Pedrok—. Horrez gain, gero eta ermuar gehiago ausartzen dira laguntza eskatzera, nolabait esateko *betiko* ermuarrak. Askok kostatzen zaie, harrotasunagatik edo, baina gero eta gehiago egongo dira...”.

Paseoetan lagun

Ermuko Udaleko Gizarte Zerbitzuekin elkarlana egiten du Gurutze Gorriak zenbait proiektutan, eta elkarrekin kudeatu

dute pertsona nagusiei deiak egitea, esaterako. Herrian dauden 70 urtetik gorako bizilagunei deitu die Udalak, eta hauek beharren bat izanez gero, Gurutze Gorria arduratu da zerbitzua emateaz eta jarraipena egiteaz. Ekimen honi esker, oinarrizko elikagaiak, higie-ne-produktuak eta medikuek agindutako botikak eramaten hasi ziren Gurutze Gorriko boluntarioak herriko pertsona nagusiei, astero edo beharrezkoa zen guztietan, eta betiere higie-ne eta segurtasun protokoloak jarraituta.


Halaber, gaitasun ezberdinak dituzten lagunek kalera irteko baimena izan dute itxialdiak iraun duen bitartean, “baina haien senideak, pertsona nagusiak gehien bat, ez ziren ausartzen irteten —diote Gurutze Gorritik—. Hori dela eta, gure boluntarioak arduratu dira pertsona horiei kalera irteteko laguntasuna ematen, eta horrela atsedendaldia eskaini bai kalera irteten zirenei, bai euren familiei”. Ermuko Gorabidek eman zizkion egoera honetan zeudenen kontaktuak Gurutze Gorriari, eta 14 lagunekin aritu izan dira lanean. Maiatzaren 17koa da daukaten azken datua, eta ordura arte 140 paseo eginak zituzten. Ekimen honek martxan jarraitzen du, eta aurrera begira pertsona nagusiei ere eskainiko zaie, haien artean interesa sumatzen delako.

Konfinamendua arintzea lan garrantzitsua bilakatu da Gurutze Gorriarentzat, eta irakurtzeak eramangarriagoa egin die itxialdia askori. Horrekin lotuta, pertsona nagusien eta Udal Liburutegiaren artean bitartekari lana egiten ari dira Gurutze Gorrikoak. “Liburutegira joateko ohitura duten pertsona nagusiek euren ohiko jarduna eten behar izan dute, eta gu arduratu gara liburutegira joan eta bazkideek eskatzen zituzten liburuak haien etxeetaraino eramaten”. 15 zerbitzuztik gora egin dituzte dagoeneko, eta datorren asteetarako gehiago aurreikusten dituzte. Gainera, Aste Santutik bueltan, ikasle batzuk ikastetxeetan utzi zituzten liburuak behar zituzten, eta etxera eraman zizkieten boluntario hauek.

Azkenik, herriko 140 jostunek egindako maskarak sortu eta banatzeko prozesuan ere lan garrantzitsua egin dute. “Alde batetik oihalak, hariak eta elastikoak desinfektatu genituen, jostunei banatu, berriro jaso, desinfektatu eta etxez etxe banatu genituen”, diote Gurutze Gorritik.

Etorkizuna

Egoera berezietan, bizilagunen elkartasuna areagotzen da, baina normaltasuna bueltatzen denean, arduradunek ez dakite zer gertatuko den boluntario hauekin. “Gehienak *boluntario antzeko egoeran* daude, hau da, momentu puntual ba-



Baliteke egunotan martxan jarritako proiektu batzuei jarraipena ematea

terako boluntarioak dira —diote Gurutze Gorritik—. Egungo egoera bukatutakoan, ikusiko dugu gure proiektuek boluntario izaten jarraitzeko beste erakartzen dituzten”. Izan ere, urtean zehar hamaika ekimen burutzen ditu Eibar-Ermuko Gurutze Gorriak, eta baliteke asteotan martxan ipinitako ekimen batzuei jarraipena ematea. “Bagabiltza hori lantzen, eta uste dugu kaleko laguntza hori luzatuko dela, bai laguntza jasotzen dutenek bai haien familiek eskertzen dutelako bata bestearengandik aldi baterako aldentzea. Eta gaur egun inolako familiarik ez duten pertsona nagusiek ere, itxialdia bukatu eta gero ez dutelako izango”, argitu du Pedrok.

Badira proiektu berriak ere, alarma egoerarekin zerikusirik ez dutenak eta Gurutze Gorriak bultzatuko dituenak, eskola-laguntza, besteak beste. “Ume batzuk laguntza behar dute eskolako lanekin, eta haien gurasoek ez daukate baliabide ekonomikorik akademia bat ordaintzeko. Esparru horretan ere babesa eskainiko dugu”, iragarri du Pedrok.

Eta nortzuk gauzatuko dituzte ekimen horiek? Arduradunek uste dute asteotan izena eman duten boluntarioak etorkizunean ere kolaboratzeko prest egongo direla, “guztiak ez, jakina. Askok orain denbora libre asko daukate, baina lanera eta egunerokotasunera bueltatzen direnean ez dute horrenbeste denbora izango”.

Baina gero gerokoak. Momentuz konfinamenduan eskaintako ekintza guztiak harrera ona izan dute herritarren artean, eta Gurutze Gorrikoek hilabete hauetan jasotako txaloak bueltatu nahi dizkiote jendeari. Horretarako ekitaldi xume bat antolatuko dute Ermuan datozen asteotan (duela egun batzuk Eibarren egin zuten bezala). Txaloak emango dizkiete herritarrei, baina jakinarazpen bat ere: “Hau oraindik ez da bukatu, eta guztion onerako, modu egokian jokatzeko jarraitu behar dugu”.

Dorleta Vidal

Laura Fernandes, ipuin-kontalaria YouTube:

“YouTubeko kanala hobbya da, baina B plana izan liteke”

Lehen Hezkuntzako azken urtean dago Laura Fernandes mallabitarra, baina konfinamendua hasi zenean ipuinak idazteari ekin zion. Martxoaren amaieran YouTubeko kanala sortu zuen istorio horiek zabaltzeko: Ipuinkontalari. Fernandesen ahotsaz eta berak diseinatu eta margotutako marrazkiez lagunduta daude.

- Egun batetik bestera youtuber bihurtu zara...

Bai, ez dut inoiz pentsatu *youtuberra* izango nintzenik, eta orain hala esaten didate...

- Zer dela-eta erabaki zenuen kanal bat sortzea?

Klase partikularrak ematen nituenean, zailtasunak nituen Interneten euskarazko edukiak topatzeko. Horregatik hasi nintzen nire ikasleentzako euskarazko materiala sortzen: fitxak, entzumenak... Gero pentsatu nuen bideoak egitea eta internetera igotzea, edozein ikaslek, irakaslek edo gurasok erabili ahal izateko. Konfinamendua hasi zenean denbora libre asko neukanez, eta ingurukoek animatu nindutenez, ipuinen kanala martxan jarri nuen.

- Zein da kanalaren helburua?

Entretenez eta sarean euskarazko edukiak gehitzen joatea. Ipuinok Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzenduta daude, baina baloreak jorratzen dituztenez, helduentzako ere aproposak izan daitezke.

- Zer topatu daiteke gaur egun Ipuinkontalari kanalean?

Hiru ipuin ditut, euskaraz eta gazteleraz, eta momentu honetan beste bat sortzen ari naiz. Nik idatzi ditut ipuin horiek, eta nik egin ditut marrazkiak zein lokuzioak.

- Zeri buruz hitz egiten dute?

Igande gozoak ipuinak, lehenak, konfinamendu-egoera islatzen du. Bigarrenak, *Otto hartzak*, umeei euren haserreak kontrolatzeari buruz hitz egiten du. *Nik erabakitzen dut* ipuinak, azkena momentuz, feminismoa, berdintasuna eta adierazpen-askatasuna lantzen ditu.

- Zenbat denbora behar duzu orri zuriaren aurrean ipintzen zarenetik bideoa zure kanalean ikusi daitekeenera arte?


Ez dakit zehatz-mehatz, baina denbora nahikoa dela esango nuke. Astebetean egin dezaket, egunero ordu batzuk eskainita.

- Zertan ematen duzu denbora gehiago: idazten, marrazten, lokuzioak egiten, bideo-muntaketan...?

Marrazten. Ez naiz oso ona, eta nire gustuko marrazkiak egiteko denbora asko eskaini behar diet. Baina beno, entretenez naiz eta gainera erlaxatzen nau.

- Zein teknika erabiltzen duzu marrazkiok egiteko?

iPadean egiten ditut, aplikazio bat erabilita. Aplikazio horretan orri bat agertzen zaizu; ondoan pintzel, arkatx eta ko-



lore pilo bat, eta haiekin marrazki digitala egiten joan zaitzke. Aurrera begira marrazkiak eskuz egiteko asmoa daukat.

- Aurretik formakuntza zenuen?

Ez, bat ere ez.

- Nola editatzen dituzu bideoak?

Filmora aplikazioa erabiltzen dut, Graduan erabili izan dugun berbera. Horretan ere ez neukan esperientziarik, baina nire kabuz ikasi dut, trasteatzen.

- Zer sentitu zenuen zure lehen bideoa Internetera igotzerakoan?

Urduritasuna egia esan, eta lotsa. Nahiago dut ingurukoek nitaz asko ez jakitea, eta bat-batean edozeinek nire ahotsa entzuteak... Dagoeneko ez daukat horrenbesteko lotsarik.

- Zer nolako harrera izan dute bideoak?

Nahiko ona, uste baino oihartzun handiagoa izan dute. Hasi nirenean ez neukan feedbackik publikoarekin, umeei zuzendutako edukia denez, YouTubek ez dituelako iruzkinak onartzen. Instagrameko kontua egitera animatu ninduten orduan (@ipuinkontalari), eta haren bitartez daukat harremana bisitariarekin.

- Eta itxialdia bukatutakoan, ipuinekin jarraituko duzu?

Bai, jendeak esaten didalako erabilgarriak direla.

- Etorkizunean, zure burua youtuber bezala ikusten duzu?

Ez daukat asmorik. Momentuz hobbya da baina B plan bezala ez dago txarto. Esperientzia honekin idazten hasi naiz, eta gustatzen zaidala ikusi dut.

Dorleta Vidal

MALLABIKO LIBURUTEGIAN LIBURUAK MAILEGUAN HARTZEKO AUKERA DAGO

Alarma egoera dela-eta, Mallabiko Udal Liburutegia itxita dago; hala ere, mailegu-zerbitzua abiatu dute arduradunek. Liburuak etxera eraman nahi dituztenak, liburutegia-ren katalogoan sartu beharko dira eta liburuak aukeratu (<https://www.euskadi.eus/liburutegia/mallabia-udal-liburutegia/web01-a2libzer/eu/>).

Ondoren, kulturretxea@mallabia.eus helbidera mezua bidali beharko dute edo 943 17 66 91 telefonora deitu (astelehenetik ostiralera 9:00etatik 14:00etara), eta aukeratutako liburuak eskatu. Azkenik adostutako ordutegian joan beharko da liburutegira eskatutakoa jasotzera. Maileguak itzultzeko data ekainaren 15era arte luzatu da.

IZAROK KONTZERTUA ESKAINI ZUEN "BBK SALA ETXEAN" JAIALDIAN

Maiatzaren 1ean *Limones en invierno* diskoa aurkeztu zuen Izaro abeslari mallabitarrak "BBK Sala Etxean" jaialdiaren barruan. Publikorik gabeko zuzeneko horretan, Iker Lauroba gitarristaz lagunduta aritu zen Izaro, eta bere ahotsa eta irudia sare sozialen bitartez zabaldu zen. "BBK Sala" k onlineko kontzertuak eta umorezko ikuskizunak programatu ditu zuzenean, konfinamendua arintzeko eta eskal kulturaren sektoreari laguntzeko.

MALLABIKO UDALAK ZERGEN INGURUKO HAINBAT NEURRI HARTU DITU



Covid-19ak sortutako alarma-egoera dela-eta, Mallabiko Udalak jakinarazi du hainbat neurri hartu dituela zergen inguruan.

Lehenengo eta behin, likidazio guztiak ordaintzeko borondatezko epea luzatu du, alarma-egoera bukatu arte. Trakzio mekanikoko ibilgailuen zergaren udal-eroldaren onarpena atzeratuko du, eta borondatezko ordainketa-epe berria 2020ko uztailearen 1etik irailaren 30era artekoa izango da. Era berean, ondasun higiezinaren gaineko zergaren eta jarduera ekonomikoen gaineko zergaren eroldaren onarpena ere atzeratuko du, eta borondatezko kobrantza-aldia urriaren 15etik abenduaren 15era bitartean izango da. Azkenik, 2020ko bigarren hiruhilekoiari dagokion hondakinen tasa ez die kobratuko 463/2020 Errege Dekretuko 10. artikulua araberak, alarma-egoeratik jendearentzako itxita dauden establezimenduei (salkotiei, tabernei eta nekazalturismoei, besteak beste). Udalarekin harremanetan jarri nahi dutenek, 943 17 14 61 telefonora deitu beharko dute, edo udala@mallabia.eus helbide elektronikora mezua bidali. Momentuz, bi bide horiek erabiltzea eskatzen die Udalak bizilagunei, eta bakar-bakarrik ezinbestekoa denean aurrez aurreko arreta eskatzea.

Meka
Lanbide Eskola

AURREMATRIKULA
Ekainaren 1etik 19ra

ERDI
MAILA

ADMINISTRAZIO KUDEAKETA
MAKINERIAREN ELEKTROMEKANIKA
IBILGAILUEN ELEKTROMEKANIKA
MENPEKOTASUN-EGOERAN DAUDEN
PERTSONEI ARRETA
SOLDADURA ETA GALDARAGINTZA
ERIZAINZAREN LAGUNTZA
KARROZERIA

GOI
MAILA

ADMINISTRAZIO ETA FINANTZAK
AUTOMOZIOA
HAUR-HEZKUNTZA
METAL ERAIKUNTZAK
GIZARTERATZEA



Albitzuri Eraikuntza
Albitzuri Pol. 24
20.870 Elgoibar
(Gipuzkoa)

Ezenarro Eraikuntza
Arregitorre Kalea, 2
20.870 Elgoibar
(Gipuzkoa)

Tel. 943 748 019
bulegoa@meka-elgoibar.eus



www.meka-elgoibar.eus

Ermua BHIko ikasleek EusLider proiekturako bideo bat prestatu dute

AEKk bultzatu eta Ahizeren bitartez koordinatzen den EusLider egitasmoaren helburua da gazteek euskararen erabileraren inguruko hausnarketa egitea. DBHko 3. mailako ikasleek parte hartzen dute bertan, eta lehen fase batean aurrez aurreko hiru kontzientziazio-saio egiten dituzte. Bigarren fasean, aldiz, ikasleek eurek ekintza bat prestatu eta burutu behar dute. Aurten estreinakoz hartu du parte Ermua BHI Institutuak, eta aurkeztu

beharreko ekintza prest izan arren (Ermuan Bagararekin batera burutu behar zutena), atzeratu behar izan dute alarma-egoera dela-eta. Konformatu beharrean, ikastetxe honetako ikasle batzuk, *mad lipz* delako teknika erabili, bideo bat prestatu dute. Hainbat pertsona eta pertsonaia ezagun agertzen dira bertan (Homer Simpson, Oprah Winfrey eta Kanye West, besteak beste), eta ikusi nahi dutenek ermua-barba.blogspot.com helbidera jo dezakete.



2020/2021 ikasturtean, DBH 4n egongo diren ikasle horiek azalduko diete DBH 3koei zer den EusLider eta nola parte hartu, eta atzeratutako ekintza sozial horri “buelta bat” eman eta gauzatzen saiatuko direla argitu du proiektuaren arduradun Juanmi Bravok.

Ermuan Bagara burutuko da ekainaren 6an



Egoerak hala eskatuta, aurtengo Ermuan Bagara “modu xumean” burutu beharko da, antolatzaileek argitu dutenez. Ekainaren 6an, larunbata, Ermuan Bagarako kamiseta janzteko deia egingo zaie ermuarrei, eta antolatzaileak hainbat proposamen lantzen ari badira ere, oraindik ez dituzte konfirmatu (nork bere kamiseta egitea, bideoak grabatzea eta kotxe batean megafonia jartzea,

besteak beste). Dena den, euskararen aldarrikapenerako egun “sinbolikoa” izango da eta euskara ikusaraztea izango da helburua. Datozen egunetan sare sozialen bitartez ezagutaraziko dira zeintzuk ekintza burutuko diren. Antxitxiketan Euskal Begirale Taldea ekintza hauetara batuko da, haren 25. urteurrenaren ospakizunerako jarduerak bertan behera utzi behar izan dituelako. Kalejira bat antolatuko dute herriko auzo eta kale guztiak dantzan jartzeko.

Atzeratutako hainbat ekitaldi bertan behera geratu dira

Konfinamendua hasi zenean, Ermuko Udaleko Kultura Sailak hainbat kultur ekitaldi atzeratu behar izan zituen. Horietako batzuk bertan behera geratu direla jakinarazi du Sail horrek azken egunotan: Pirritx, Porrotx eta Marimototsen *Bizi dantza*, La Nereren *Dando el cante* eta Artedramaren *Zaldi urdina*. Erositako sarreraren dirua berreskuratzeko telefono honetara deitu beharko da: 943 70 87 00 (9:00etatik 15:00era). Bestalde, Dani Fernándezek 2021eko urtarrilaren 29an eskainiko du ekainerako aurreikusita zegoen kontzertua; Arizona Babyrena, 2021eko otsailaren 26an egingo da; eta *El patio de mi casa* antzerkia, apirilaren 30ean. Aurretik erositako sarrerak erabil daitezke, baina bueltatu nahi dituztenek lehen aipatutako telefono zenbakira deitu dezakete.

Drogetenituri, 289 zk.

Hiru hilabete igaro dira zabortegia erori zenetik



Maiatzaren 6an hiru hilabete bete ziren Zaldibarko zabortegian luizia egon zenetik. Zaldibar Argitu plataformak deituta, lore eskaintzak egin ziren egun horretan 7 herritan (tartean Ermuan eta Mallabian), Joaquín Beltrán eta Alberto Sololuzeren oroi-menean. Plataformak adie-

razi duenez, erakundeen eta Verter Recycling 2002 enpresaren aldetik azalpenak jasotzeko zain daude, eta eskatu diete erantzukizunak har ditzatela. Eusko Jaurlaritzako Irekia atarian astero ematen dituzte bi langileen gorpuen bilaketaren inguruko datuak. Azken txostenean jasotzen denez (maiatzaren 15ean), gorpuk bilatzeko prozesua hasi zenetik, 109.395 m³ hondakin atera eta berrikusi dira. Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak hondakinak bahetzeko eta erauzteko lanei lehenbaita emateko zehaztu zituen lau bilaketa-eremuetatik, bi “erabat berrikusita eta garbi” daudela, “hondakin gabe” adierazi dute txostenean.

KZguneak zuzeneko formakuntza eskaintzen du

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietan trebatzen jarraitzeko, zuzeneko ikastaroak eskaintzen ditu egunotan KZguneak: bideokonferentziaren bidez, eta 4 eta 6 pertsona arteko talde murriztuetan. Parte hartu nahi dutenek www.kzgunea.net helbidera jo dezakete, bertan ikusi daiteke eskuragarri dauden ikastaroak, zalan-tzak argitu eta izena eman. Ikastaroak doakoak dira.

IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK

Online: maiatzaren 21etik ekainaren 8ra.

Aurrez aurre: ekainaren 1etik 8ra

9:00etatik 14:00etara Ermuko Haurreskolan



Ordutegi malguak
Plaza mugatuak
Zuen beharretara egokitzen gara

0 eta 2 urte
bitarteko
umeentzat

ERMUKO HAURRESKOLA

Iparragirre,15 (Antzoki parean)

943 17 64 31

ermua.ermua@haurreskolak.eus

Haurreskolak

www.haurreskolak.net




ArmeriaEskola^x

NAZIOARTEKOTZA
AUKERAK_
Europa/Mundurako
bekak
Zikloak ingelesez

METODOLOGIA
BERRITZAILEAK_
Erronketan oinarritutako
talde lana




LAN
POLTSA
Langile
teknikoen
beharra

AURRE MATRIKULA

Ekainaren 1etik 19ra

(biak barne)

ESKAINTZA
ZABALA
Erdi eta goi
mailako
zikloak,
espezializa-
zioak



info gehiago, gure
webgune eta sare
sozialetan!



www.armeriaeskola.eus



LAN AUKERA
ZABALA_
Enpresa
harreman estua

GERTUKO
HARREMANA
eta ORIENTAZIO
PROFESIONALA



Gorka Vilchez, ingeniaria:

“Guk gauzatu dugu enpresek ezin izan dutena egin”

3D inprimagailu bat erabilia, Gorka Vilchez ermuarrak bere aletxoak jarri du koronabirusaren aurkako borrokan. Merkatuan babes ekipoa erostea ezinezkoa zen unean, Gorka bezalako beste boluntario askoren lanari esker, Euskal Herriko osasun langileek 55.000 babes pantaila jaso zituzten.

- Zer dela eta hasi zinen babes pantailentzako euskarriak egiten?

Ezagun baten bitartez izan nuen horren berri. Hark ere 3D inprimagailua du, eta *maker* mugimenduko kidea da. Mugimendu honetako kideek, teknologiaren kontsumitzaile izan beharrean, teknologia sortzen dute 3D inprimagailuak baliatuz. Covideuskadi.net webgunearen berri eman zidan, eta zertan zebiltzan azaldu. Bertako taldetxora batu, inprimatu beharreko artxiboa deskargatu eta lanean hasi nintzen.

- Haiek helarazi zituzten erabili beharreko materiala?

Ez, oso ohikoa da beste lan batzuetako soberakin dezente izatea etxean, eta haiek erabili izan ditut. Gainera, euskarri bakoitzak oso material gutxi eskatzen zuen. Materiala jasotzeko kanpaina ere egin zen covideuskadi.net atarian, baina ni etxean neukanarekin aritu naiz.

- Euskarriak inprimatu eta gero, zer egiten zenuen haiekin?

Aipatutako webgune horretan azaltzen zen prozedura euskarriak garbitu eta paketatzeko, eta prest zeudenean, DYAKoak etortzen ziren etxera bila. Euskarri horiei aurreko plastikoa ipini behar zitzaien gero.

- Badakizu nora bidali ziren zuk egindako babes pantaila horiek?

Jasotako euskarri guztiak probintziara banatu ziren, eta gertutasunez, nik egindakoak Gipuzkoara bidali ziren. Osasun esparruko langileak hornitzeko jaio zen ekimen hau, baina biserak homologatuta ez zeudenez, leku batzuetan ez zituzten onartu. Beste batzuetan bai ordea, ez zeukatelako besterik. Behin haiek hornituta, egoitzetan, farmazietan, erakundeetan eta dendetan banatu dira. Izan ere, jendearekin harremanetan zegoen edozein langilek eska zezakeen bisera bat aipatutako webgunearen bitartez.



- Zenbat euskarri egin dituzu?

60 bat. Horietatik 55 inguru covideuskadi.net plataformara bidali nituen, eta gainontzekoak amari (merkataria baita), eta herriko beste denda batzuei helarazi dizkiet. Ohiko maskarek belarrietan egin ditzaketen urradurak ekiditeko piezak ere egin izan ditut, ingurukoek erabili ditzaten.

- Zergatik eten zenuen lana covideuskadi.netekin?

Momentu batetik aurrera gure lana ez zelako jada beharrezkoa: merkatuan biserak erosteko aukera hasi zenean. Ajangizko Maier Kooperatiba covideuskadi.netekin harremanetan jarri zen, eta euskarriak egiteko injekzioko moldea egin zuen. Horri esker, 5 segundotan euskarri bat egin zezaket, eta inprimagailu batekin 50 minutu behar dira. Baina hornidura arazoak zeudenean, guk, astebeteko epean, egin dugu enpresek ezin izan dutena egin.


- Momentu batean zuen lana ezinbestekoa izan da...

Bai, ausartu ginen eta gure lanak balio izan du. Batzuetan Osakidetzatik edo egoitzetatik argazkiak bidaltzen zizkiguten gure biserak jarrita, eskerrak emateko, eta ilusio eta poz handia sentitzen nuen, lagundu ahal izan dudalako, etxetik eta lan erraza eginez, gainera.

- Ohikoa da 3D inprimagailua etxean izatea?

Ez, nik dakidala Ermuan beste bi daude. Nik duela 5 urte erosi nuen. Ingeniari mekanikoa naiz, eta diseinatzaile lana egiten dut. Nire lanerako beste erreminta izan zitekeelako erosi nuen, ikasteko eta hobby bezala. Eta orain ere erabilgarria izan zait.

Dorleta Vidal



Deseskalatze neurriak, tabernarien buruhauste

Maiatzaren 11n deseskalatzearen 1. fasea sartu zen indarrean Euskal Autonomia Erkidegoan (EAEn), eta horrek terrazak zabaltzeko parada eskaini zien ostalariei. Burutu zezaketen jarduera mugatua zen, eta tabernari batzuk egoera berriari tamaina hartzen saiatu ziren bitartean, beste batzuk pertsiana momentuz ez igotzea erabaki zuten.

Alarma egoeratik irteteko bidean, adi jarraitzen dituzte biztanleek gobernuek ia egunero egiten dituzten adierazpen eta neurri-eguneraketak. Maiatzaren bigarren astean EAE 1. fasera igaro zen, eta horrekin batera iragarri zen Normaltasun Berrirako Trantsiziorako beste pausu bat ematen ari zela, herriko merkataritzari eta ostalaritzari zegokienez ere. Merkatariek bete beharreko segurtasun eta higiene neurriak leundu ziren bitartean, tabernariak jakin zuten egunerokoari berrekin ahal izango ziotela. Baina ez orain arte bezala, jakina.

Bezeroek tabernetako terrazak bakarrik erabil zitzaizkiren, eta horiek edukiaren %50era mugatuta zeuden. Gehienez, hamar lagun egon zitezkeen elkarrekin, betiere elkarren arteko bi metroko distantzia errespetatuz, eta zerbitzu bakoitzaren ondoren mahaiak eta aulkiak desinfektatu behar ziren. Baldintza zorrotzak ziren, “suizidio ekonomikoa” Gipuzkoako Ostalarien Elkarteak idatzaria den Kino Martínezen esanetan, eta horien ondorioz, Espainiako Ostalaritza Elkartek aurreikusten du 85.000 taberna eta jatetxe itxi egingo direla estatuan.

Baina bizibidea atera behar da, eta terraza daukaten taberneak erabakitzeak aukera dute. Ez da gutxi! Félix Delgado ostalari ermurrak maiatzaren 11n bertan ekin zion lanari bere tabernan, Plan B-n. “Hau da nire diru-iturri bakarra – aitortu du Félixek—. Udalak 600€ko diru-laguntza emango digu, baina nire egoera pertsonala dela-eta, hori ez da nahikoa”. Ez du diru inbertsiorik egin behar izan taberna berriro zabaltzeko (babes ekipoak eta gelak izan ezik) eta aurretik zituen mahai guztiak ipini ahal izan ditu, hala baimendu delako Udalak, lekua izanez gero eta segurtasun distantziak errespetatzen badira. Ordu asko ematen ditu Delgadok tabernan, baina errentagarria dela dio. “Ez diot beste inori soldata ordaindu behar, eta ateratzen dudana niretzako da. 15 ordu nago lanean, baina hau tokatu zaigu!”. Bezeroei buruz, haien jarrera egokia dela dio, eta momentuz behintzat errespetuz jokatu izan dutela %99an.

Beste muturrean Infreñu taberna dago, itxita jarraitzen du. Bertako bi jabeetako bat den Gorka Gonzalezen esanetan, jendeak errespetatu beharreko neurriak betearzteak tabernari-lana polizia-lan bihurtuko luke ia-ia. “Gure lana gustatzen zaigu, eta ez dugu nahi egunero etxera haserre joan behar izatea”, dio Gonzalezek. Bestalde, diru aldetik ere



ez du bideragarria ikusten. “Taberna zabaltzen dugun momentuan, gastuak hasiko dira, egunekoak zein itxi genuenean utzi genituen zorrak, alokairua esaterako. Eta terrazarekin bakarrik... itxita baino galera gehiago izango genituzke”.

Aitortzen du Udalaren aldetik ez dutela inolako dirurik jaso, eta haren jokaerarekin haserre dago. “Asko hitz egin da diru-laguntzei buruz, baina oraindik ez da ezer erabaki. Diru-laguntza horiek gainera Ermuko Merkataritza eta Ostalarien Elkartearen bitartez bideratuko dira, eta gu ez gara bertako ki-deak. Zaborra kobratu eta aurrerago bueltatuko digutela ere esan digute, eta urarena ez dagoela bere esku, baina bada-kigu uraren inguruan erabakiak hartzeko ahalmena dutela”. Dena den, Infreñukoek pozik egoteko arrazoiak ere badituzte. Egoerari aurre egiteko kamisetak eta poltsak ipini zituzten salgai, eta jasotako erantzuna, animikoki zein ekonomikoki “laguntza handikoa” izan da.

Etorkizunera begira

Datorren astera begira (maiatzaren 25eko astera), informazio falta salatzen du Delgadok. “Entzun dut bezeroak taberna barrura sartu ahal izango direla, baina nik ez dakit zehatz-mehatz zenbat mahai jarri ahal izango ditudan. Uste dut aste honetan zehar Udala tabernetara joan beharko litza-tekeela, eta lokal bakoitzean ipini daitezkeen mahai kopurua zehaztu”. Gonzalezek zaila ikusten du egoera berri horretan helduen eta umeen joan-etorriak kudeatzea tabernan, oraindik ere zer egin erabaki ez duten arren. “Asmoa da zabaltzea jendeak barran eskatu ahal duenean, eta tragoarekin kanpora irten”, dio.

Eta etorkizunera eta normaltasunera begira zalantzak berri-oro ere. “Hasieratik pentsatzen dut Santixauetarako normaltasunera bueltatzen hasita egongo garela —dio Gorkak—, ordutegi aldetik ere. Azkenean larunbatean 23:00etan itxi behar izateak kaxa erdi kentzen dizu. Bestalde, ez nuke esango bezeroengan ohitura aldaketarik egongo denik, irteteko desiratzen dagoelako jende guztia”. Félixek, aldiz, uste du ostalaritzan lan egiteko modua aldatu dela, eta aurreikusten du %100era bueltatu ahal izateko abendura arte edo otsailera arte itxaron beharko dela. “Bitartean, mahairik mahai zerbitzatzera ohitu beharko gara, barran jendea pilatu barik”.

Dorleta Vidal

Tximeleten izen bilduma

Udaberri eta aro onari lotuta dugu tximeleta. Tximeleta? Edo txipilatoia deitu beharko genioke, ermuarren erara? Edo eskabixie, mallabittarrak legez? Edo eibartarren mitxeleta? Edo zergatik ez berriztarren mariposie? Lekuan-lekuko, guztiak baleko!

Zerrenda osatzeko iturri desberdinez baliatu gara: ahoz-kotasuna, Interneteko pare bat blog eta hiztegi, Euskaltzaindiaren ataria, Asier Sarasua biologo eibartarraren zerrendatxoia eta Plazido Mugika hiztegi-gileak han-hemenka batutako izen andana. Iparraldean edo mugatik gertu dauden artean papillon eta honen deribatuak gailentzen dira; Hegoaldean, ostera, mariposa. Aldaera bakoitza, errepikatu arren, behin bakarrik jarrita eta halanda ere edonor harritzeko beste izen!

Ahetze: pinpilin

Aldube: papillon

Andoain: mariposa

Altzürükü: jinko hunaen ollo

Amezketza: mixirrika

Aramaio: pitxeleta

Arrasate: txipeleta

Arbizu: atxiyamatxi

Arboti: ollo papillon

Arrieta: sorginbitxi

Arroa: tximilita

Asteasu: mitxirrika

Ataun: mitxarreta

Beasain: txiperrete

Berango: txirpillota

Bergara: tximeleta

Beruete: pinpilipoxa

Berriz: mariposie

Beskoitze: xitxitola

Derio: pirtxilota

Dima: txilipotada

Donamaria: jangoiko mandaturi

Donostia: inguma

Dorrao: mitxirriketa

Eibar: mitxeleta

Elgoibar: mitxelekote

Ermua: txipilatoia

Errexil: txinbeleta

Erronkari: sarnasarnafuera

Eskiula: hilibü

Etxebarri: bitxilote

Etxebarria: txiribiri

Ezkio-Itsaso: petxuleta

Ezkurra: txiripiton



Gaintza: tximutx

Getxo: txipillota

Hernani: pinperin

Jatabe: txerpeleta

Larrabetzu: txilipitaña

Larraun: axandillo

Legazpi: pitxoleta

Leioa: sorginmitxi

Leitza: pinpilinpauxa

Lemoa: txilipota

Mallabia: eskabixie

Mendaro: mitxilokotoi

Mugerre: xintxitoil

Mungia: marisorgin

Mutriku: kalaputxi

Oderitz: axuandillo

Oñati: txipilipeta

Olaberri: txinberreta

Ondarroa: kalapitxi

Sondika: txirpilota

Tolosa: pinpirinpausa

Uharte Garazi: mapillon

Zeanuri: eskabie

Eta leku-izen zehatz barik ere hor daude: aperiko, apex, arima, astatsa, astoluma, atsoaren, atxiamatxia, atximitxi, atxitamatxi, atxitamutxita, atxinini, axandalo, azapinpirin, bitxilota, farfail, gau-ulika, jainko-belatx, lilirita, makara, maripanpalona, maripuxitia, matxita, mitxirika, mutxutxui, oilo-zuri, panpina, pertxilota, pinpirin, pitxilokote, pitxilingaria, pitxilipeta, pitxita, sorgin-oilo, txalaputxi, txalumitxi, txepeleta, txibiltxori, txiketa, txilipitaina, tximirrika, txintxilinpalo, txintxinpalo, txintxitola, txipirina, txipiritona, txipirrita, txiripitona, txirita, txiruliru, txitxilera, txitxi-papa, ulifarfalla, zintzitoil... eta abar luzea, ze beste izen mordo batek, hiltzune-kin batera, hegan egin dute. Aberastasun ederragorik, inon ere ez!

Estibalitz González

ITZAL TXABARRI

- Nola gogoratzen duzu zure haurtzaroa?

Urki auzoan bizi nintzen, eta oso oroitzapen onak ditut. Gurasoek maitasun handiarekin hazi gintuzten.

- Zer irakatsi zizuten gurasoek?

Balore onak transmititu zizkidaten, eta gurasoengandik jasotakoan oinarrituta hazten dira umeak.

- Zer diozu gaztaroaz?

Lagunekin irteten nintzen asteburuetan, nire garaiko guztiak bezala. Ermua modan zegoen, eta hona etortzen ginen. Hemen ezagutu nuen gerora nire senarra izango zena.

- Noiz etorri zinen Ermura bizitzera?

Duela 15 urte, mutil-lagunak hemen erosi zuelako pisua.

- Umetan zer izan nahi zenuen?

Estetizista edo ile-apaintzailea. Amak estetika ikasi zuen eta kiropraktikoa da, eta haren munduak erakartzen ninduen.

- Horretan egiten duzu lan?

Gaur egun, ez. Bederatzi urtez ile-apaindegia izan nuen Eibarren, eta oso gustura ibili nintzen, baina seme nagusia jaio eta handik gutxira lana utzi nuen, bera zaintzeko.

- Lan hura faltan botatzen duzu?

Bai, lan polita delako: jendearekin egon, apaindu...

- Zertan diharduzu egun?

Ostalaritzan. Senarra eta neba Eibarko Ipur Sagardotegia-
ren jabeak dira duela 5 urtetik hona, eta ni bertako bulego-
an nago. Asteburuetan, beharrezkoa bada, zerbitzatu ere
egiten dut.

- Zer da lan horretatik gehien gustatzen zaizuna?

Barran jendearekin egotea gustatzen zait, eta bulegoan or-
denagailuarekin jardutea ere, biak.

- Eta gutxien?

Ordutegiak, eta etengabeko borroka dela.

- Zer egiten duzu lanetik irtendakoan?

12, 8 eta 4 urteko seme-alabak eskolan jaso, eta eskolaz
kanpoko ekintzetara joan. Ez daukat beste ezertarako den-
borarik...

- Euskara hobetzeari tartetxoa egiten diozu. Zenbat urte Gurasolagunen?

9 urte egin ditut. B ereduan ikasi nuen, baina gero euska-
rarekin kontaktua galdu nuen eta... Gurasolagun euskara
praktikatzeko aukera paregabea iruditu zitzaidan, eta oso
jende jatorra ezagutu dut.

- Bidaiatzea gustatzen zaizu?

Bai, pilo bat. Venezia, esaterako, asko gustatu zitzaidan;
Paris, aldiz, bisitatzeke daukat.

- Musika?

Baita ere: ezin izango nintzateke bizi musika-rik gabe! De-
netik entzuten dut: mariatxiak, heavy metala, Camela, ope-
ra... Reggaeton izan ezik.

- Zer ikusten duzu telebistan?

Filmak eta serieak, batez ere.

- Jateko?

Pasta.

- Baduzu biziorik?

Bizpahiru zigarro erretzen ditut egunero.

- Zure bertute bat aipatu beharko bazenu...

Beti ahalegintzen naiz besteak ondo tratatzen.

- Akatsik?



Eibartarra da eta 43 urte ditu. Ermura ezkondu zen duela 15. Hiru neba-arreben artean, gazteena. Bi seme eta alaba bat ditu. Estetika ikasi eta ostalaritzan egiten du lan egun. Hamarkada beteko du laster Gurasolagun egitasmoko kide gisa.

Jenio bizia daukat, baina 5 minututan ahaztu egiten zait.

- Zerk haserretzen zaitu?

Gezurrek, ezin ditut jasan.

- Zer eskatzen diozu lagun bati?

Zorionsua izatea.

- Eguneko zure momentua?

Gauean, afaldu eta gero, 21:00ak inguruan, nik bakarrik
telebista ikusten dudanean.

- Puntuala zara?

Bai. Errespetu falta iruditzen zait ez izatea.

- Bizitzako egunik zorionsuena?

Nire ezkontza eguna eta seme-alabak jaio zirenean. Erdi-
tzeak zailak izan ziren, eta zesareaz jaio ziren hirurak, bai-
na sari ederrenak dira!

- Zer albiste irakurri nahiko zenuke?

Egungo egoera surrealista ikusita, normaltasunera buelta-
tu garelako albiste ona litzateke.

- Hartu duzun erabakirik zailena?

Sagardotegia hartzea. Hobe buelta gehiago eman izan ba-
genio!

- Berrero jaioko bazina...

Dena errepikatuko nuke. Osasuna izanez gero, estuasun
guztietatik irteten zaitzateke.

Dorleta Vidal

Birusaz eta eskolaz

Apirileko zenbakirako eskatu zidan *Drogeteniturrrik* iritzi artikulua. Gai libre eskaini zidaten, hori bai, covid 19ak hezkuntzan izan duen eraginaz idazteko iradokita.

Idatzi beharrekoa buruan neukala, apirilekoan ez, baizik eta maiatzekoan agertuko zela esan zidaten. Adierazi behar nuenak ez du balio, ikuspegia aldatu dut.

Duela hilabete egoera iragankorrean geundela uste nuen. Aurki, maiatzaren erdialdean, eskolara bueltatuko ginela eta ikasleek, izatekotan, galera txikia izango zutelala. Argi neukan optimismoz egin behar geniola aurre egoerari. Hezkuntzaren helburua ikasleen gaitasunen garapena izanik, hainbat eduki landu gabe geldituta ere, ikasleek beste kompetentzia batzuk garatzeko aukera izango zutelala: irakasleen etengabeko gainbegirada saihestuta, autonomia irabaz zezaketela; irakasle eta ikasleen arteko distantziak behartuta, orde-nagailua bihurtuko zen funtsezko tresna, ikasleen kompetentzia digitala hobetuz; komunikaziorako kompetentzia ere garatu egingo zen, erregistro eta modu anitzak erabili beharrak bultzatuta.

Etxeraltzealdiak nire baikortasunean zauri bat ireki du. Ikasleak ez dira ikasgeletara bueltatuko eta eskolaratze telematikoaz jarraitu beharko dute. Irakasle naizen aldetik, dagoeneko igartzen dut ikasleen nekea. Hasierako indarra ahultzen joan da, batzuk gutxiagotan konektatzen dira eta arretari eustea zailago egiten zaie. Nire aldetik, eskolak emateko modua goitik behera aldatu behar izan dut.

Jarduera anitzak, hau da, diferentteak proposatzen ahalegindu naiz, batzuetan arrakastaz, beste batzuetan, segur aski, ez horrenbeste. Egoera berrirako ez nagoela guztiz ongi prestatuta konturatu naiz.

Ikasleen arteko harremanean ere eragina izan du berrogeialdiak. Trebetasun sozialak garatuta dituztenek ez zuten arazo handirik izango. Ezin gauza bera esan ordea, horretarako dohainik ez dutenei buruz. Askok, bakartuta daude etxean bere adinkideekiko ezinbesteko kontaktua murriztuta edo desagertuta.

Badira baita ere telelanerako gutxieneko trebeziarik ez dutenak. Etxean daude, sarri konektatu bari edo proposatutako lanen aurrean kamuts, ezin erantzun. DBHko ikasleekin daukat nik esperientzia baina beste etapetan ere antzeko zailtasunak izango dituztelakoan nago.

Aita naizen aldetik, beste ikuspuntu bat ere aztertu dezaket egoera berrian. Batetik, eskolak umearen zaintza eskaintzen dio gurasoari. Seme-alaba bertan dagoela, bere lana eta zereginak lasai egiteko aukera ahalbidetzen du. Alaba edo seme txikia etxean egonda, nekez uztartu dezake lana eta haurrek behar duten arreta. Aittitta eta amamen laguntza ezinbestekoa da beste behin ere. Bestetik, gurasoa irakasle bihurtu da sarri askotan. Maisuak edo andereñoak oso ondo antolatzen du ikasleen lana eta aurretiaz bidaltzen ditu zereginak, ondo azalduta, argi eta garbi, zalantzarik gabe. Baina umeak helduaren beharra du egu-



Gaizka Areitioaurtena

nekoarekin aurrera egiteko. Bere lana antolatzen lagundu behar zaio, azaldu, zuzendu. Lan handia da gurasoentzat, ondo burututa gehienetan. Tamalez etxe askotan gurasoek zailtasun handiak dituzte umei eskolako lanetan laguntzeko. Etxeratzeak, eskola presentzialaren faltak, handitu egin du, ikasmailari dagokionez, ikasleen arteko arrakala


Eta irailan zer? Nola hasiko dugu kurtsoa? Etxean? Eskolan? Zenbat denbora egongo dira ikasleak eskolan? Ikasle guztiak joango dira eskolara? Txandaka? Herritarrok, gure premiak aztertuta, erabaki egin beharko dugu zeintzuk diren gure lehentasunak eta lau urtez behin guri zerbitzua eskaintzeko botoa eskatzen digutenei argi eta garbi helarazi behar dizkiegu. Gure beharrak plazaratu behar ditugu. Ikasle guztiak eskolan hartzeko baliabideak bermatu beharko ditu gobernaturako duenak. Giza-baliabideak batetik, ikastaldetako kopurua murriztu behar bada irakasle gehiagoren beharra izango baitugu. Ongi prestatutako gazte asko dago zain lanari ekiteko. Azpiegiturak behar ditugu, ikasgelak. Dazkagunak ez dira nahikoak sortu beharko diren taldeak hartzeko. Baliabide teknologikoak behar ditugu ikasle guztien eskura jartzeko. Formazioa behar dugu irakasleok, behar berriei taxuz egokitzeko.

Momentua da aurrekontuak egokitzeke, diru asko xahutzen duten egitura handiak baztertzeko eta gizartearen ongizateari begira ezinbestekoa denari lehentasuna emateko.


“

Etxeraltzeak nire baikortasunean zauri bat ireki du

”




Ekainaren 4an
Zorionak zure 3. urtebetetzean. Muxu pila familia guztiaren partez, asko maite zaitugu.



Ekainaren 5ean
Zorionak gure neska handia!!!!!! 12 urte beteko dituzu!!!! Asko maite zaitugu!!! Eder, aita eta ama.



Maiatzaren 28an
Zorionak Naroa eta oso ondo pasa zure 8. urtebetetzean! Musu haundi bat etxekoan partez.




Maiatzaren 16an
Egun zoragarri bat pasa dezazula zure urtebetetze egunean bihotza!!!! Etxekoak pilo maite zaitugu, jarraitu zaren bezalako izaten. Gu beti egongo gara bidean laguntzeko prest. Zorionak Kerman!!!!



Maiatzaren 31n
Zorionak Katixa, gure maiatzeko lorie! Urtetxo bat! Mosu bana etxeko danon partez. Maite zaitugu!

Bidali zure zorion-agurra: drogeten@gmail.com
Hurrengo aldirikarirako azken eguna: Ekainaren 17a.

Maiatzaren 11n itxialdiaren deseskalatzearen 1. fasea sartu zen indarrean. Normaltasunera bueltatzeko lehen urratsa da, eta horren eraginez hainbat segurtasun eta higiene arau jarraitu behar ditu biztanleriak. Uste duzu deseskalatzearen eraginez, gure ohiturak aldatuko direla?



- Bai: 73 boto.
- Ez: 31 boto.

Maiatzaren 14tik 21era egon da inkesta honetan parte hartzeko aukera, eta guztira 104 boto jaso dira Euskal Biruseko Facebooken.

Tasio eta Sabino



MALLABIA 1985

Argazki hau 1985-1986 urteetakoa da. Mallabiko eskolako umeak Elgetzu baserrira joan ziran ogia egiten ikustera. Bertan agertzen dira: Asier Arellano, Ander Martin, Leixuri Solozabal, Nerea Solozabal, Aritz Mayora, Leire Azpiazu, Alazne Madariaga, Eider Larrazabal, Maria Angeles Ramos, Leire Aranburu, Aritza Benito, Iñaki Garitaonandia, Mikel Fuentes, Raquel Velasco, Mari Jose Nuñez eta Mikel Aritzaga.



ERMUA 1970



Maiatzaren 30ean ezkondu zen Feli Garitagoitia Juan Luis Egiazu plaentxiarrarekin. Ezkontza osteko bazkaria Valerionian, Valerio Gandiagaren harategi-jatetxean egin zuten; bertako alaba Rosario sukaldari ona zela eta fama handia zuten orduan sasoiaren. Jatetxea gaur egun Jubiletxea den eraikinaren zati zen eta erretratua pare-parean aterata dago, pispilluen arbola-pean. Ezkonberria inguratzen, lagun eta senideak. Ezkerretik hasita eskumara Inmaculada Solozabal, Guadalupe López, Berta Yarza, Feli bera, M^a Laura de la Haya, M^a Cristina Egia, Laurita Bilbao eta Aurora Lerín.



Aurrematrikulatzeko moduak | cómo prematricularse:

1- Presentziala; etorri zaitez!
presencial; ¡te esperamos!

2- Telefonoz | por teléfono: 943 20 84 44

3- Web bidez | a través de nuestra Web: www.uni.eus

AURRE MATRIKULA PREMATRICULA ekainak 1-19 junio



LANBIDE HEZIKETA 2020-21
FORMACIÓN PROFESIONAL 2020-21

GOI MAILAKO ZIKLOAK
CICLOS DE GRADO SUPERIOR

M NAZIOARTEKO MERKATARITZA
COMERCIO INTERNACIONAL

▲ ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK
ADMINISTRACIÓN Y FINANZAS

**ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK ESKAINTZA
PARTZIALA ARRATSALDEZ**
ADMINISTRACIÓN Y FINANZAS OFERTA PARCIAL
POR LAS TARDES

F EGOKITZAPEN FISIKOA
ACONDICIONAMIENTO FÍSICO

GIZARTE ETA KIROL IRAKASKUNTZA ETA ANIMAZIOA
ENSEÑANZA Y ANIMACIÓN SOCIODEPORTIVA

I PLATAFORMA ANITZEKO APLIKAZIOEN GARAPENA
DESARROLLO DE APLICACIONES MULTIPLATAFORMA

SAREKO INFORMATIKA SISTEMEN ADMINISTRAZIOA
ADMINISTRACIÓN DE SISTEMAS INFORMÁTICOS EN RED

WEB APLIKAZIOEN GARAPENA
DESARROLLO DE APLICACIONES WEB

ESPEZIALIZAZIOAK
ESPECIALIZACIONES

I ENPRESA TXIKI ETA ERTAINETAKO ZIBERSEGURTASUNA
CIBERSEGURIDAD EN PYMES

ERDI MAILAKO ZIKLOAK
CICLOS DE GRADO MEDIO



M MERKATARITZA JARDUERAK
ACTIVIDADES COMERCIALES

▲ ADMINISTRAZIO KUDEAKETA
GESTIÓN ADMINISTRATIVA

I SISTEMA MIKROINFORMATIKOAK ETA SAREAK
SISTEMAS MICROINFORMÁTICOS Y REDES

**IKASTETXE PUBLIKO
DOAKOA**
CENTRO PÚBLICO
GRATUITO

Otaola Hiribidea, 29
20600 Eibar, Gipuzkoa
T_943 20 84 44
idazkaritza@uni.eus
www.uni.eus

@uni.eus  



Udako euskara ikastaroak
2020

aek euskara
praktikoa



udan, arinago

**KALTXANGO
AEK
EUSKALTEGIA**

Zearkale 16, behea
ERMUA

943 17 19 40

kaltxango@aec.eus

www.aek.eus



KALTXANGO AEK EUSKALTEGIA

2020ko EKAINA/UZTAILA/IRAILA

**EKAINA · DBH 4 ETA BATXILERREKO IKASLEENTZAT
B2/C1**

UZTAILA · B1/B2/C1
Ekainaren 24tik uztailaren 22ra
Izena emateko azken eguna, ekainaren 19a

IRAILA · B1/B2/C1
Abuztuaren 31tik irailaren 26ra
Izena emateko azken eguna, uztailaren 23a

**Diruz lagunduak
EUSKALTEGI HOMOLOGATUA**